

## PRAKTIKAK EGINGO DUTEN IKASLEEK IZENPETU BEHARREKO AGIRIA

..... jaunak/andreak, NAN/IFZ/NIE  
..... duenak, " ..... entroan  
ikasle gisa" prestakuntza aldia egingo du, hurrengo ikasketak egiten ari delarik:

- Psikologiako Gradua
- Osasun Psikologia Orokorreko masterra
- Logopediako Gradua

Honako hau adierazten du:

1. Onartzen du pazienteek eskubidea dutela beren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatu dakizkien; eta eskubidea dute, baita ere, beren prozesuarekin lotutako informazio guztia konfidentziasunez erabil dadin.
2. Era berean, onartzen du pazienteek eskubidea dutela beren osasunari buruzko datuak konfidentziasunez errespetatu daitezkeen eta, aurrez emandako baimenik ez badago, badute eskubidea ere beren datuak inork ez erabiltzeko.
3. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 5. artikulua araberak, aitortzen du (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 5.1 f) artikuluan aipatzen den konfidentziasun-betebeharraren mende egongo dela; betebeharrak orokor hori sekretu profesionalaren eginbeharren osagarria izango dela, aplikatzekoa den araudiaren arabera, eta aurreko bi betebeharrak horiek mantenduko direla betebeharrekoaren eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen arteko harremana amaitu bada ere. Hala, bada, bere jardueran eskuratzen duen informazioa isilpean gorde behar du, eta konpromisoa hartzen du edozein informazio/dokumentazio bere prestakuntza-aldian eta hura amaitutakoan ahalik eta arreta eta konfidentziasun handienaz erabiltzeko eta zaintzeko.
4. Onartzen du ezin duela transferitu, bikoiztu edo erreproduzitu zentroko jardunean erabiltzen duen informazioa, ez osorik ez zatiren bat. Bestalde, ezin ditu erabili zentroak prestakuntzarako emandako datuak beste xede batzuetarako edo zentroko zuzendariak baimendutako beste helburu batzuetarako.

5. Ezagutu eta onartzen du osasun zientzien arloko jarraibidea, arlo horrekin zerikusia daukaten ikasleek pazientearen intimitate eskubidea bermatu eta babestera bideratutako oinarrizko arauak zehazten dituena.
6. Jakitun da bere ardura dela konfidentzialtasun betebeharra errespetatzea eta hori ez betetzeak ondorio penalak, diziplinazkoak edo zibilak ere ekar ditzakeela.
7. Horregatik guztiagatik, konpromisoa hartzen du zentroan izango duen jokabidea adierazpen honetako aurreko ataletan jasotakoarekin bat etor dadin.

.....(e)ko .....aren .....a

Ikaslearen sinadura

Interesdunarentzako alea

Zentroarentzako alea